

Bidebarrietak "El Caso Newton"-en eleberriaren aurkezpena jasoko du asteazkenean. Deia, Noticias de Bizkaia

Bilboko Udalaren esku dagoen Bidebarrieta Kulturguneak, "El Caso Newton" (Erein argitaletxea) Anton Arriolaren azken eleberriaren aurkezpen ekitaldia jasoko du asteazken honetan, maiatzaren 16an, Ander Azurmendi apaiz ohi eta Antropologia irakaslea protagonista duen serieko bigarren entrega. Ekitaldia arratsaldeko 19:30ean hasiko da eta sarrera libre izango du aretoko leku guztiak bete arte.

BILBO. "El Caso Newton" 2001ean dago girotuta. Dorre Bikiak deuseztatu eta bi hilabete eskas igaro ondoren, atentatu arraro katea jasan du Bilbok. Bata bestearen ostean, gizartearen oinarriak kolpatu dira: erlijio sinboloak, kulturguneak, ondare zientifikoa... Herritarrak gero eta harrituago dauden bitartean, Deustuko Unibertsitateko katedradun baten liburutegiak bigarren krimen kateari eman dio hasiera.

Lapurretan Isaac Newtonen jatorrizko zenbait lan desagertu dira, Rotterdameko Erasmoren Erokeriaren Gorazarrearekin batera: itxuraz euren artean eta terrorismo nihilista berriarekin inolako loturarik ez duten antzinako eskuizkribuak dira. Unibertsitateak Ander Azurmendi apaiz ohi eta Antropologia irakaslearen laguntza eskatuko du. Ikerlaria, Cambridgeko Trinity Collegea eta Vatikanoa, baina batez ere gure garaiko logia sekretu indartsuena, barne hartzen dituen konspirazio kriminean murgilduko da.

Anton Arriola (Durango, 1967) Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua da Deustuko Unibertsitatetik eta MBA Luigi Bocconi Unibertsitatetik. Haurtzaroa eta gaztaroa Bilbon igaro zituen, eta ondoren Milanen, New Yorken eta Londonen bizi izan zen, enpresa ingurunean lan eginez bi hamarkadatan.

“Rjukan” (2014) lehenengo eleberria alpinismoaren, gai etikoen eta galdera existentzialen inguruan dago girotuta. “La travesía del Voga” (Playa de Ákaba Narratiba Saria 2015), adimen artifizialari eta hilezkortasunari buruzko gogoeta da, Mediterraneoan zehar egindako zeharkaldian girotua. “El Negro y la Gata” (2016) lanarekin eleberri beltz serieari eman zion hasiera. “El caso Newton” Ander Azurmendi apaiz ohi eta Antropologia irakaslea protagonista duen serie horretako bigarren lana da.